

Terrorismoaren Biktimen  
Partaidetzarako Euskal Kontseilua

2020ko abendua

# Terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren

arloan egin beharreko urratsak,  
biktima horien ekarpena hobetzea  
eta eraginkorrago egitea ere helburu  
dutenak, hala hezkuntzaren arloan  
nola iraganari buruzko hausnarketa  
kritikoko prozesuetan eta, oro har,  
desberdinen arteko elkarrizketan

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES





Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua  
2020ko abendua

Dokumentu hau 2017tik 2020ra bitartean Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluan izandako eztabaidaren emaitza da, **terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren** arloan eman beharreko urratsei buruz eta biktima horien ekarpena hobetzeko eta eraginkorragoa egiteari buruz, bai hezkuntzaren arloan, bai iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuetan, bai eta, oro har, desberdinen arteko elkarrizketan ere.

Ohartarazi behar da ezen, biktimei eta terrorismoari buruz hitz egiten dugunean,

- ETari buruz ari garela lehenik. ETAk eta antzeko beste erakunde batzuek baliatutako indarkeria giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aurkako indarkeria sendoa izan da. Sufrimendu larri eta bidegabea eragin die pertsoneri eta familiei, bai eta gizarte osoari ere. Hurbileko memorian sartzen den aldian, ETA izan da bizitzeko eskubidea gehien urratu duena. ETaren indarkeriak gizarte-sostengua izan zuen, eta helburu politikoak lortzeko bitarteko gisa erabili zen. ETAk modu sistematikoan erabili zituen izua, mehatxua eta hilketak, proiektu politiko totalitario bat inposatzeko, non ez baitziren onartzen euskal gizartearen aniztasun ideologikoa edo kide izatearen sentimenduak. Indarkeriazko estrategia horren erabilerak sostengu handia jaso zuen, eta oraindik ere euskal gizartearen zati batek onartzen du, ez baitu orain arte gaitzetsi eta ez die biktimei barkamenik eskatu (ez eta gizarte osoari ere, hamarkadetan beldurpean izan duen arren); aitzitik, zoritxarrez, ekitaldi publikoak egiten dira oraindik terroristak aintzatesteke, baita omentzeko ere. Horregatik, eta eragindako kalte guztiarengatik, gaitzespen argi eta garbiko jarrera partekatua merezi du. Horrez gain, biktimen aurrean esplizituki adierazi behar da ez dela inoiz izan kausarik bakoitzaren bizitzak, duintasunak edo osotasunak baino balio handiagorik izan duenik. Ondorioa hau da: ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horrenbestez, inoiz gehiago ez gertatzeko mezu hori pedagogikoa izan dadin eta belaunaldiz belaunaldi helaraz dadin, ETA baztertzean berariaz baztertu behar dira erakundeak baliatu zuen indarkeriaren justifikazioa, legitimazioa edo gorespena.
- Baina GALi, BVeri, GAeri eta antzeko taldeei buruz ere ari gara. Hurbileko memoria-aldian giza eskubideen beste urraketa batzuk gertatu dira erakunde horien ekintzen ondorioz. Indarkeria horrek biktimak eta sufrimendu larri eta bidegabeak eragin ditu, eta horiek ez dira beti aintzatetsi, ez eta, batzuetan, ikertu ere. Erakunde horiek eragindako indarkeria eta estatuko estamentuen konplizitate-, zigorgabetasun-, onespenez- edo pasibotasun-egoeretan gertatutako giza eskubideen urraketak arbuiatzen ditugu, aringarririk gabe. Ondo-

---

ria, beraz, honako hau da: ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horregatik, eta “inoiz ez” dioen mezu horrek balio pedagogikoa eta belaunaldien artekoa izan dezan, indarkeria hori arbuiatzeak berekin dakar indarkeria minimizatzearen, ezkutatzearen edo ukatzearen aurkako jarrera, baita biktimak diskriminatzearen aurkakoa ere.

Nolanahi ere, erakunde terrorista bat baino gehiago egon badaudela aitortzearekin batera, zeharo baztertu behar da biktimizazioak nahastea, baita indarkeria bat kontrapisuko argudio gisa erabiltzeko edo beste zeinu bateko indarkeria bat legitimatzeko asmoa ere. Ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horregatik, eta “inoiz ez” dioen mezu horrek balio pedagogikoa eta belaunaldien artekoa izan dezan, indarkeria mota oro arbuiatzen badugu, arbuiatzen dugu, halaber, giza eskubideen urraketa batzuk edo biktima batzuk beste batzuk justifikatzeko, konpentsatzeko, diluitzeko edo minimizatzeo erabiltzea.



# Laburpena eta ondorioak

## I. Terrorismoaren biktimen errekonozimendua eta erreparazioa

Biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari dagokionez, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak funtsezko hiru premisa ditu abiapuntu:

- Gabezia handiak izan dira.
- Hala eta guztiz ere, asko egin da.
- Baina egitekoa ez da amaitu.

Izan ere, ez da lortu ordezkari politiko eta instituzional guztiek modu argian eta kritikoan baloratzea iraganean erakunde terroristen eta, bereziki, ETaren indarkeriak eragindakoa.

Egiteko nagusi horrekin batera, –eta hargatik eragotzi gabe azterlanak egitea terrorismoaren biktima guztiei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko legeek aurreikusitako prozesuak osatzen eta hobetzen jarraitzeko, baita errealitate horren eta biktimen eta haien familiek jasandako sufrimenduaren eza-gutzan eta errekonozimenduan sakontzeko ere–, egokitzen jo liteke:

- Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei proposatzea terrorismoaren biktimei buruzko euskal legea aldatzeko aukerak eta komenigarritasuna azter eta balora dezatela, errealitate berrira eta nazioarteko terrorismoaren forma berrietara hobeto egokitu dadin.
- Toki-mailako akordio bat susta dadin proposatzea, udalerrri bakoitzean biktimak oroitzeko erreibindikazioari erantzuna emateko moduari buruz, biktima horiek nozitutako atentatuak gertatu ziren lekuak seinaleztatzeko aukera barne, baldin eta biktima horiek ados badaude eta udalean adostasun nahikoa badago.
- Maila partikularrago batean, hau erreklamatzeko:
  - Atentatua jasan zuten garaiagatik (bereziki, 70eko eta 80ko hamarkadetan) edo haien kasua guztiz argitu ez delako eta –igarotako denbora kontuan hartuta– haien ebazpen judiziala gertagaitza delako, errekonozimendua edo erreparazio-defizita izan duten biktimen laguntza sendotzea.
  - Egia jakiteko eskubidea eta atentatu terroristaren inguruabarrei buruzko informazio guztia jasotzeko eskubidea benetan aitortu dadin bultzatzea. Horrek esan nahi du ahalegin handiagoa egin behar dela:
  - Datuak eta informazioak dituzten pertsonen aukera gehiago izan ditzaten horiek emateko.
  - Eta dagoen informazio guztia ezagutzera eman dadin eta guztion eskura egon dadin.

- 
- Eta, zehazki, arlo judizialean:
    - Auzitegi Nazionalean informazio judizialerako eta sumarioa identifikatzeko eskubidea sustatzeko eta bermatzeko ahalegina egiteko, biktimek edo haien familiek aukera izan dezaten senitartekoaren auzi judizialean egindako guztiaren kopia lortzeko.
    - Era berean, Auzitegi Nazionalak atentatu terroristak guztiz argitu ezin izan diren kausak aztertu eta ezagutzeko aukera eman dezala aldarrikatzeko.
  - Biktimen errekonozimendu pertsonalizaturako neurriak bultzatzea:
    - Testigantzak grabatzen eta horiek Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eta Terrorismoaren Biktimen Memorialaren artxiboetan gordetzen jarraituz.
    - Erakundeen arteko keinu pertsonalizatu baten garapena bultzatuz, biktimitako bakoitzari eta haien familiei jasandako bidegabekeriaren eta egia historikoaren adierazpen ofizialaren dokumentua modu solidarioan emanaz.

## II. Biktimen hezkuntza-ekarpena

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak positiboki baloratzen du biktimek hezkuntzan emandako testigantzen esperientzia, eta beste eremu batzuetara zabaldu beharko litzatekeela uste du.

Horrela, Adi-adian Biktima Hezitzaileen Programari dagokionez, egokitzen jotzen da:

- Biktimek, betiere askatasunez eta beren borondatez, jasandako bidegabekeriaren aurrean beren bizitzaren, borrokaren eta erresilientziaren lekukotza pertsonala eman ahal izateko aukerak gehitzeko proposatzea,
  - aurrez aurreko lekukotza emanaz ikastetxeetan eta unibertsitateetan, edo hezkuntza ez-formalaren eremuetan, zeharka edo ikastaro espezifikoen bidez,
  - gogora Institutuaren artxiboan gordetako testigantzak grabatuz, baldin eta dibulgazio- eta hezkuntza-erabilerarako baimena badute,
  - testigantzen grabazioekin beste biktima-profil batzuetara ere iritsiz: zauritutako eta mehatxatutako biktimak, jazarpen-indarkeriaren biktimak eta terrorismoaren aurkako borrokan buru izan diren giza-taldeen ordezkariak.
- Horren garapena unibertsitatera, lanbide-heziketara eta hezkuntza ez-formaleko beste eremu batzuetara zabaltzen jarraitzea.
- Esperientziaren potentzialtasuna aztertzea, terrorismoarekin eta indarkeriarekin lotuta sortzen ari diren beste fenomeno batzuei hezkuntzaren eta prebentzioaren ikuspegitik aurre egiteko.

Hezkuntza-maila formalagoan, honako hauek egitea komeni dela azpimarratzen da:

- Historia objektiboki ezagutzearen eta biktimen testigantzen arteko lan osagarria erraztea eta sustatzea, bai eta horiek ikasle guztiei zuzendutako lerroetan islatzea ere, modu transbertsalean eta irakasgai jakin batean agortu gabe.

- Gurasoek, irakasle-taldeek eta Berritzeguneek ikaskuntza- eta introspektzio prozesu horretan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.
- Gazteen bisitak sustatzea datu historikoak biltzen dituzten zentroetan, non azterlanak egiten baitira eta terrorismoari eta terrorismoaren biktimei buruzko dokumentazio guztia artxibatzen baita.

Indarkeria politikoa deslegitimatzeke eta indarkeria hori sustatzen duten erradikalismoak prebenitzeko, gainera,

- Biktimen seme-alaben eta biloben lekukotasunak ere funtsezkotzat jotzen dira; izan ere, gurasoak galdu zituzten beren bizitzako une garrantzitsuetan, erreferente horiek behar zituztenean, eta barne-erbesteratze horretatik beren bizitzari zentzua emateko premiara igarotzea zaila izan zen, gertatutakoa ezagutzearen bitartez.
- Eta, era berean, baloratu beharko litzateke indarkeria erabili zuten pertsonen testigantzak izateko aukera, ondoren beren iraganari buruz eta helburu politikoekin indarkeria erabiltzeari buruz hausnarketa autokritiko sakona egin dutenena.

Era berean, Kontseilua bat dator erlijio-izaerako integritate erradikalari arreta handiagoa emateko premiarekin eta beharrarekin; izan ere, garatutako esperientzia oso baliagarria izan daiteke eremu horretara bereziki bideratutako prebentzio-hezkuntzako proiektu bat egiteko, honako hauen bidez osatuta:

- Gazteen erradikalizazio-prozesuak identifikatzeko azterlanak eta ekintzak bultzatzea.
- Enpatia, ulermena eta lankidetzaren sustatzeko mezuak zabaltzea, eta bidegabekeriak eta horiek elkarrizketaren eta bestearen onarpenaren bidez konpontzeko modua identifikatzea.
- Lan sakona egitea (adibidez, irakurketa ideologiko partekatuaren bidez) indarkeriara jotzearen ahulezia eta faltsutasuna ezinbestean desmuntatzera bideratutako argudioei buruz, eta horren ordez arrazoian, errespetuan eta aniztasun politiko, kultural, linguistiko, erlijioso eta sexualaren onarpenean oinarritutako argudioak erabiltzea.
- Gizarte baten barruan ghetto fisikoak (auzoa, ikastetxeak, etab.) eta ghetto sinbolikoak, intelektualak edo ideologikoak sortzea saihestea, ghetto horiek ezartzen dituzten oztopoak hausteko lan ginez gutxienez.

---

### III. Biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren iritziz, garrantzitsua da justizia errestitutiboak biktimen eskubideei eman diezaiekeen erantzuna, biktimen eta gizartearen erreparazio-ondorio biziak izan ditzaketen neurri-sorta baten bidez, biktimagileengan eragin nabarmena izateaz gainera.

Esparru hori sustatzea komeni da, eta horretarako urrats espezifiko hauek proposatzen dira:

- Erreparazio Errestitutiboaren Oinarrizko Printzipioan oinarritzen diren esperientziak babestea; izan ere, printzipio horrek hau eskatzen die biktimagileei: egindako delitutik eta jarduera terroristatik modu kritikoan urruntzeko, biktimei eragindako kalte bidegabea aitortzeko, inoiz ez justifikatzeko, indarkeriaren erabileran oinarritutako helburuak baztertzeko eta biktimek egia jakiteko duten eskubidea bermatzen laguntzeko borondate esplizitua erakusteko.
- Ibilbide hori egin duten eta biktimekin elkartzea bilatzen duten presoek hori egitea erraztuko duten guneak sortzea, betiere elkartze horietan parte hartzeko edo ez hartzeko biktimen autonomia eta askatasuna ahalik eta gehien errespetatuz eta alde zuzenetik bermatuz biktimari kalte material edo moral gehiago ez eragitea.
- Memoriako jardueretan errestitutazio-ildoak sustatzea, erreparazioaren, bizikidetzaren eta delituaren prebentzioaren pedagogian balio erantsiko emaitzak lortzearen, irismen luzeko hezkuntza efektuekin.

Hori guztia biktima bakoitzaren beharrei arreta berezia eskainiz, guztiek ez baitute erantzun bera eskatzen.

Nolanahi ere, biktimen lekukotzak erabakigarria izaten jarraitzen du memoria eraikitzeari eta gertatutakoaren egia berreraikitzeari dagokionez, eta erabakigarritzat jotzen da, halaber, erakunde publikoek:

- Biktimak gizartera lehen pertsona hurbilduko dituzten programak bultzatzen jarraitzea, bai terrorismoaren biktimen testigantzak bai benetako gizarteratze-prozesua egin duten biktimagileenak bilduz eta sailkatuz, iraganari buruzko hausnarketa kritikokoaren prozesuan izan dituzten ahalmenak kontuan hartuta.
- Iragana argitzeko txostenak egiten jarraitzea, egia jakiteko eskubidea bermatzen laguntzeko, biktimen testigantzen bilketa zabalduz, iraganaren memoria kritikoa eraikitze aldera, eta hezkuntza eta gizarte-eremu desberdinetan haien testigantzak entzuteko prozesuen zabalkuntza sustatuz.
- Testigantza horiek tresna gisa erabiltzea DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako Historia irakasgaiei dagozkien unitate didaktikoetan, eta behar bezala kontserbatzea.
- Testigantza horiek bai gizarte osoan bai belaunaldi berrietan zabaltzeko lan egitea, pedagogia soziala egiteko, funtsezko balioa baitira bizikidetzarako eta berriro ez geratzeko.



## IV. Biktimak eta desberdinen arteko elkarrizketa-prozesuak

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak aitortzen du biktima guztien eskari komuna dela:

- Gertatutakoa erabat argitzeko eta justiziarako eskubidea.
- Jasandako sufrimendu bidegabea aitortzea eta erreparazioa jasotzea.
- Benetako kontakizunean oinarritutako memoria, jasan duten indarkeria argi eta garbi deslegitimatzen duena.

Hori onartuta, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua bat dator, halaber, euskal gizartean bakearen kultura sustatzeko beharrarekin, baliogorputz sendo batean eta gatazkak konpontzeko tresna gisa elkarrizketa sustatzean oinarrituta. Baina, horretarako, ezinbestekoa da indarkeria terroristaren erabilera erabat deslegitimatzea: ETaren amaierak ezin du ekarri gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe iragana ahaztea.

Kontseiluaren iritziz, gutxieneko etiko sahietsezin bat abiapuntutzat hartuta –biktimak eragin zituen indarkeria-ekintza oro bidegabekeria izan zela aitortzea–, elkarrizketa bat bultzatu beharko litzateke hainbat norabidetan:

- Terrorismoaren biktimen artean, zeinen egoerak eta pentsamoldeak askotarikoak baitira.
- ETaren terrorismoaren biktimen eta beste terrorismo mota batzuen, GALen, BVEren, GAEn eta antzeko erakundeen biktimen artean.
- Biktimen eta gizartearen artean: bai biktimetatik eta haien elkarrekinetik gizarte-adierazpenetara, bai gizartetik eta gizarte-, politika- eta erakunde-eragileetatik biktimengana; bereziki etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartuta, bakearen balioa irakatsi behar baitzaie.

## Azken hausnarketa, etorkizunari begira

Euskal gizarteak biktimek bizi izan duten errealitatea ezagutzen badu, herritarrek jakin ahal izango dute zer kalte jasan duten, eta hausnarketa kritikoa sustatu ahal izango da, biktimekiko jarreran bizi izan duten sektarismoa aitortu ahal izateko; izan ere, gaur egun ere irauten du jarrera horrek.

Bizikidetzara irazteko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, iraganari bizkarra ez ematea eta gertatutakoa argitzen saiatzea, biktimen errealitatea eta borroka-espiritua ezagutzea, indarkeria terrorista jasan duten guztien memoria eta oroimena zaintzea, haien testigantzak zabalduz terrorismoaren biktimei aitortpen soziala eskaintzea, eta antzeko egoera batetik igaro diren eta testigantza horietan laguntza- eta inspirazio-iturri bat aurki dezaketen beste biktima batzuei laguntzea. Zeregin horretan, azpimarratu behar da Biktimen Elkarrekin, Fundazioek eta Gobernu-erakundeek egindako lan garrantzitsua, testigantzak dokumentatuz eta artxibatuz, eta hezkuntza- eta gizarte-eremuan material gisa erabiliz.

---

Etorkizunari begira, ezinbestekoa da jarduera eta proiektu horiek indartzea, lan hori burutzen eta gizarte osora zabaltzen laguntzeko, kontzientziazioari eta sensibilizazioari eusteko eta herritarrekin enpatizatzeke, bereziki gazteenekin.

Nolanahi ere, hainbesterainokoak izan dira deshumanizazioa, bizitako gertaerei buruzko beldurrari eutsi dion belo isila, balioen alderantzikatzea eta enpatiarik eza, ezen oinarritik beretik berreraikitzen hasi behar baita, pertsona guztiok gizaki gisa dugun duintasuna aitortzetik abiatuta.

Eta horretarako ezinbestekoa da lehenbailehen desagerraraztea terrorismo mota ororen justifikazioa eta terroristen omenaldi publikoak eta haien sinboloen gorospena. Hain zuzen ere, kasu horiek “bigarren mailako biktimizazio”, “birtraumatizazio” edo “birbiktimizazio” kasuak dira, eta anormaltasun demokratikoaren sintoma argiak indarkeria terroristaren bidegabekeria aitortzen duen gizarte batean, non oraindik ere entzun eta kontuan hartu beharreko biktima asko sortzen baitira, zeinentzat funtsezkoa izaten jarraitzen baitu une batean edo bestean terrorismoa babestu dutenek ekarpena egitea iraganari buruzko beren azterketan eta haren etorkizuneko proiektioan eta deslegitimazio argian, anbiguotasunik eta gaizki-ulerturik gabe.

2020ko abendua





*Euskadi, auzolana, bien común*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

